

## 4. FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure produktuak funtziona dezan, hainbat bazkide garrantzitsu behar ditugu. Gure bazkide nagusiak lana aurkitzeko eskuragarri egongo diren enpresak izango dira, gurekin hitzarmena eukiko dutenak. Gure helburua, lan mota gehienetako enpresekin hitzarmena eukitzea da.

Enpresa horiekiko harremana izango da gure proiektua aurrera eramateko faktore garrantzitsuenetako bat, haiek izango baitira gure zerbitzuaren funtsezko elementua, lanpostuetan praktika desberdinak eskaintzean oinarritzen dena.

Hitzarmena dugun enpresa bakoitzean langile bat egongo da, haren lana bezeroa gidatzea izango da bere praktiketan. Langile hauek enpresaren barnekoak izango dira. Kontratuari dagokionez, ardura horrengaitik komisio bat jasoko du, baita enpresak ere. Praktika bakoitzeko irabazien %80a enpresarentzako izango da, eta diru kantitate horietatik enpresa bakoitzak erabakiko du zenbateko komisioa jasoko duten haien langileak, hauek soldata barnean konplementu moduan sartuz.

Gure enpresaren funtsezko itunak gure artean ere izango dira, bakoitzak funtsezko baliabide bat jarriko du. Eneritzek webgunea sortzeaz hasieran eta gero kudeatzeaz arduratuko da. Horrez gain diru kontuak eta interneteko eskaerak kontrolatuko ditu. Aimar eta Ibonek, bezeroei laguntza eskaintzeaz arduratuko dira, hau da, arreta zerbitzua eramango dute, presentzial zein internetekoa. Azkenik, Ekain eta Asierrek enpresaren kanpoko errepresentanteak izango dira, enpresekin hitzarmenak egiteaz arduratuko direnak, baita aldatzeaz ere.